En el supuesto de que hubiere recepciones parciales, el plazo de garantía de los bienes entregados y recibidos de conformidad por la Administración comenzará a contarse desde las fechas de las respectivas recepciones parciales.

59. klausulak. Akatsak edo hutsegiteak bermealdian zehar.

Bermealdian zehar burututako lanek akatsak edo hutsegiteak dituztela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak horiek konpontzeko eska diezaioke kontratistari.

Bermealdia amaituta administrazioak aurreko ataletan aipatutako salaketa edo eragozpenak formalizatzen ez badu, kontratistak ez du emandako prestazioaren gainean inolako erantzukizunik izango.

Cláusula 59. Vicios o defectos durante el plazo de garantía.

Si durante el plazo de garantía se acreditase la existencia de vicios o defectos de los trabajos efectuados, el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar al contratista la subsanación de los mismos.

Terminado el plazo de garantía sin que la Administración haya formalizado alguno de los reparos o la denuncia a que se refiere los apartados anteriores, el contratista quedará exento de responsabilidad por razón de la prestación efectuada.

Hirugarren atala. Administrazioaren eskumenak eta ahalmenak

Sección tercera. Prerrogativas y facultades de la Administración.

60. klausula. Administrazioaren eskumenak.

Kontratua burutu ostean, kontratazio-organoak aldaketak egin diezazkioke soilik interes publikoko arrazoiak daudenean, eta pleguek horrela aurreikusten dutenean edo legez ezarritako kasuetan eta mugekin. Aldaketa horiek kontratazio-organoak erabaki behar ditu, dagokion prozedura izapidetu ondoren. Dokumentu administratibo batean formalizatu beharko ditu, eta kontratatzailearen profilean argitaratu.

Cláusula 60. Prerrogativas de la Administración.

Una vez perfeccionado el contrato, el órgano de contratación sólo podrá introducir modificaciones en el mismo por razones de interés público, cuando así se prevea en los pliegos o en los supuestos y con los límites legalmente previstos. Estas modificaciones deberán ser acordadas por el órgano de contratación, previa tramitación del procedimiento oportuno, formalizarse en documento administrativo y publicarse en el perfil de contratante.

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak lan-programa eguneratu beharko du.

Cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, el contratista quedará obligado a la actualización del programa de trabajo.

Laugarren atala: Kontratua suntsiaraztea.

61. klausula. Kontratua suntsiaraztea.

Legez ezarritakoez gainera, agiri honen **I. eranskineko 31. idatz-zatian** jasotzen diren arrazoiengatik eman daiteke amaitutzat kontratua.

Kontratua 109. artikuluan zehazten den prozedurari jarraikiz izapidetuko da. Gainera, kontratazio-organoak funtsezko betebehar gisa ezartzen dituen arrazoiengatik ere eman daiteke kontratua suntsiarazitzat.

Sección cuarta. De la resolución del contrato.

Cláusula 61. Resolución del contrato.

Serán causa de resolución del contrato, además de las legalmente establecidas, las previstas en el **apartado 31 del anexo I** al Pliego.

La resolución contractual se tramitará con arreglo al procedimiento detallado en el artículo 109 y siguientes del RGLCAP en el plazo de 8 meses contados desde la fecha de incoación del procedimiento de resolución.

Bosgarren atala. Helegiteak.

62. klausula. Helegiteak.

SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako kasuetan, aukerakoa izango da administrazio-helegite berezia jartzea kontratazioaren alorrean, administrazioarekiko auziaren aurretik, 15 egun balioduneko epean, SPKLren 50. artikuluan ezarritako baldintzetan. Errekurtso hori ebazteko organo eskuduna EAEko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da.

Helegite bereziaren bidez aurkaratu daitezkeen jarduketen aurka ezin da jarri administrazio-helegite arruntik.

Sección quinta. Recursos.

Cláusula 62. Recursos.

En los supuestos previstos en el artículo 44 de la LCSP, procederá con carácter potestativo la interposición del recurso administrativo especial en materia de contratación previo al contencioso-administrativo, en el plazo de 15 días hábiles, en los términos previstos en el artículo 50 de la LCSP. El órgano competente para conocer del recurso será el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales del País Vasco.

Contra las actuaciones susceptibles de ser impugnadas mediante recurso especial, no procederá la interposición de recursos administrativos ordinarios.

Administrazio baldintza partikularren pleguan eta preskripzio tekniko partikularren pleguan xedatutakoaren artean desadostasunik egonez gero, administrazio baldintza partikularren pleguan xedatutakoa nagusituko da.

En caso de cualquier tipo de discrepancia entre lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego de prescripciones técnicas particulares, prevalecerá lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

I. ERANSKINA

Kontratuaren ezaugarriak

1.- Kontratuaren xedea zehaztea: (5. eta 39. klausulak)

Tolosako udalerrian bazterkeria egoeran daudenentzako eguneko eta gaueko arreta zerbitzua

CPV: 85300000-2 Gizarte-laguntzako zerbitzuak eta horiei lotutako zerbitzuak/85310000-5 Gizarte-laguntzako zerbitzuak/85320000-8 Gizarte-zerbitzuak

Kontratu honen xedea da Tolosako udalerrian bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko eta gaueko arreta zerbitzua eskaintzea, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin lankidetzan eta hark ikuskatuta eta gidatuta.

Zerbitzu horren bidez eskainiko dira 2015eko urriaren 6ko prestazio eta zerbitzuen zorroaren 185/2015 Dekretuan bazterkeria egoeran dauden pertsonei zuzendutako bi zerbitzuak, eguneko arretarako zerbitzua (1.7.b) eta gaueko harrera-zerbitzua (1.8.) fitxetan deskribatutakoak.

Era berean, azken urteotan sortutako behar berriari erantzuna eman eta zerbitzu honen eraginkortasuna bermatzeko, Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3) ere eskainiko da, bazterkeria arriskuan dauden pertsonei arreta integrala emateko. Zerbitzu hau gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza, ingurune komunitarioan garatuko da, eta helburu nagusia izango da esku-hartze goiztiarra eta jarraitua bermatzea, erabiltzaileek lortu dezaten: a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta bizikidetza egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak eskuratzea eta garatzea; b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzea, ahal bezain laster gizarteratze prozesuari ekin diezaioten.

ANEXO I

Características del contrato

1.- Definición del objeto del contrato: (Cláusulas 5 y 39)

Servicio de atención diurna y nocturna a personas en situación de exclusión en el municipio de Tolosa

CPV: 85300000-2 Servicios de asistencia social y servicios conexos / 85310000-5 Servicios de asistencia social / 85320000-8 Servicios sociales

El objeto del presente contrato es la prestación del servicio de atención diurna y nocturna para personas en situación de exclusión en el municipio de Tolosa, en colaboración y bajo la supervisión y dirección del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Tolosa.

A través de este servicio se ofrecerán los dos servicios dirigidos a personas en situación de exclusión, descritos en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, sobre la cartera de prestaciones y servicios: el servicio de atención diurna (ficha 1.7.b) y el servicio de acogida nocturna (ficha 1.8).

Asimismo, para dar respuesta a la nueva necesidad surgida en los últimos años y garantizar la eficacia de este servicio, se prestará el Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial (1.3) para prestar atención integral a las personas en riesgo de exclusión. Este servicio consiste en un conjunto de prestaciones relacionales de apoyo socioeducativo y/o psicosocial –de carácter individual, familiar y/o grupal–en el entorno comunitario , y el objetivo principal será conseguir mediante esta intervención precoz y continuado que las personas usuarias: a) adquieran y desarrollen capacidades personales, familiares o grupales, que favorezcan su desenvolvimiento autónomo, su inclusión social y la adecuada convivencia en el medio familiar y comunitario; b) sustituyan hábitos, conductas, percepciones, sentimientos y actitudes, que resulten inadecuados por otros más adaptados, para que se involucren en procesos de inclusión lo antes posible.

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

Kontratuaren xedeak jarduketa osoa eskatzen duenez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean eta baita aldi baterako ere egingo direla, ez da egokia kontratua lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke kontratua ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, kontratuaren hainbat prestazio gauzatzeko beharrezkoa den koordinazioa dago, eta lotetan zatituz gero, ezinezkoa izango litzateke prestazio horiek gauzatzea, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.	Dado el objeto del contrato, en el que se requiere una actuación completa, y tomando en consideración que todas las actividades y trabajos objeto del mismo van a desarrollarse en un mismo espacio físico e incluso temporal, no resulta adecuado dividir en lotes el mismo, por cuanto la realización independiente de diversas prestaciones comprendidas en el objeto del contrato dificultaría la correcta ejecución del mismo desde el punto de vista técnico. Asimismo, existe una necesaria coordinación en la ejecución de diversas prestaciones del contrato y que, en el caso de su división en lotes, conllevaría la imposibilidad de su realización, o cuanto menos, colisionaría con los principios de una actuación eficiente, transparente e íntegra.
Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektibo batek ezarritako subrogatzeko betebeharra (SPKLaren 130. artikulua): Aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da. Enpresak Gipuzkoako Esku Hartze Sozialerako IV. Hitzarmen Kolektiboa aplikatzen du 2023-2025 urteetarako (20100025012011 kodea).	Obligación de subrogación por norma legal, un convenio colectivo o un acuerdo de negociación colectiva de eficacia general (artículo 130 LCSP): Se estará a lo dispuesto en el convenio colectivo aplicable. La empresa aplica el IV Convenio Colectivo de Intervención Social de Guipúzcoa para los años 2023-2025 (código 20100025012011).
Plegu honetako V. eranskinean subrogazioak eragindako langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa jasotzen da, lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Informazio hau SPKL Legearen 130. artikuluan aurreikusitakoa betez helarazten da.	En el anexo V de este pliego se recoge información sobre las condiciones de los contratos del personal afectado por una posible subrogación, a fin de poder realizar una evaluación detallada de los costes laborales. Esta información se facilita en cumplimiento de lo previsto en el artículo 130 de la LCSP.
Kontratu erreserbatua SPKLren 4. Xedapen Gehigarriaren arabera: Ez. Obra/horniduretako kontratu osagarria: Ez.	Contrato reservado de conformidad con la D.A. 4ª LCSP: No. Contrato complementario de obras/suministro: No.
Datuak lagatzea eta tratatzea - Sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzea eskatzen ez duen kontratua. - Kontratistak datu pertsonalak tratatzea eskatzen ez duen kontratua, tratamenduaren arduradunaren kontura. - Halaber, SPKLren 122.2 artikuluko b) eta d) letretan xedatutakoaren arabera, honako betebehar hauek jasotzen dira: - Kontratista izango denak datuak babesteari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu, SPKLren 202. artikuluaren 1. zenbakiaren azken lerrokadan ezarritakoari kalterik egin gabe.	Cesión y tratamiento de datos - Contrato cuya ejecución no requiere de la cesión de datos por parte de entidades del sector público al contratista. - Contrato cuya ejecución no requiere el tratamiento por el contratista de datos personales por cuenta del responsable del tratamiento. - Asimismo se hace constar, a tenor de lo dispuesto en el artículo 122.2 letras b) y d) LCSP, las siguientes obligaciones: - La obligación del futuro contratista de someterse en todo caso a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos, sin

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

- Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, adierazpen bat aurkeztu beharko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazteko.
- SPKLren 122. artikuluaren 2. zenbakiaren c) letran aipatzen den adierazpenean ematen den informazioan kontratuaren bizitzan gertatzen den edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra.

SPKLren 122. artikuluaren 2. zenbakiaren a), b) eta d) letretan jasotako betebehar horiek funtsezkotzat jotzen dira SPKLren 211. artikuluaren 1. zenbakiaren f) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako.

perjuicio de lo establecido en el último párrafo del apartado 1 del artículo 202 LCSP.
- La obligación de la empresa adjudicataria de presentar antes de la formalización del contrato una declaración en la que ponga de manifiesto dónde van a estar ubicados los servidores y desde dónde se van a prestar los servicios asociados a los mismos.
- La obligación de comunicar cualquier cambio que se produzca, a lo largo de la vida del contrato, de la información facilitada en la declaración a la que se refiere la letra c) del apartado 2 del artículo 122 LCSP.

Estas obligaciones recogidas en las letras a), b) y d) del apartado 2 del artículo 122 LCSP, son calificadas como esenciales a los efectos de lo previsto en la letra f) del apartado 1 del artículo 211 LCSP.

2.- Administrazio-organoak. (2., 34. eta 36. klausulak)

Kontratazio-organoa: Tokiko Gobernu Batzarra.

Unitate izapide-egilea: Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saila.

Posta helbidea: Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa, Gipuzkoa.

Kontratazio mahaiaren konposizioa

- Lehendakaria: Alkateordea, Cristina Pelaez Errazquin. Ordezkoa: Alkateordea, Aitor Aguirresarobe Murgui.
- 1. Bokala: Alkateordea, Ander Figuerido Zubiria. Ordezkoa: Alkateordea, Goiuri Ezeiza Arandia.
- 2. Bokala: Udal idazkaria, Karmele Contreras Goikoetxea, edo haren ordezkoa.
- 3. Bokala: Udal kontu-hartzailea, Marta Alonso Sarasola, edo haren ordezkoa.
- 4. Bokala: Kontratazioko AOT, Francisco Javier Araniguría Rodrigo, edo haren ordezkoa.
- 5. Bokala: Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko burua, Ainara Irazusta Zubeldia, edo haren ordezkoa.
- Idazkaria: Kontratazioko administraria: Oihana Aramburu Ayerbe, edo haren ordezkoa. (botorik gabe).

3.- Kontratuaren jarraipen eta egikaritzeaz arduratzen den unitatea. (4. klausula)

Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saila.

2.- Órganos administrativos. (Cláusulas 2, 34 y 36)

Órgano de contratación: Junta de Gobierno Local.

Unidad tramitadora: Área de Servicios Sociales y Salud.

Dirección postal: Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa, Guipúzcoa.

Composición de la mesa de contratación:

- Presidenta: La teniente de alcalde, Cristina Pelaez Errazquin. Suplente: El teniente de alcalde, Aitor Aguirresarobe Murgui.
- Vocal 1: El teniente de alcalde, Ander Figuerido Zubiria. Suplente: La teniente de alcalde, Goiuri Ezeiza Arandia.
- Vocal 2: La secretaria municipal, Karmele Contreras Goikoetxea, o quien le sustituya.
- Vocal 3: El interventor municipal, Marta Alonso Sarasola, o quien le sustituya.
- Vocal 4: El TAG de contratación, Francisco Javier Araniguría Rodrigo, o quien le sustituya.
- Vocal 5: La jefa del Área de Servicios Sociales y Salud, Ainara Irazusta Zubeldia, o quien le sustituya.
- Secretaria: La administrativo de contratación: Oihana Aramburu Ayerbe, o quien le sustituya. (sin voto).

3.- Unidad encargada del seguimiento y ejecución del contrato. (Cláusula 4)

Área de Servicios Sociales y Salud.

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

Kontratuaren arduraduna: Ainara Irazusta Zubeldia, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko arduraduna.

Responsable del contrato: Ainara Irazusta Zubeldia, jefa del Área de Servicios Sociales y Salud.

Kontratuaren arduradunaren eginkizuna izango da, besteak beste, kontratuaren betearazpena gainbegiratzea; horretarako, kontratua behar bezala gauzatzeko erabakiak hartu ahal izango ditu, behar diren jarraibideak eman ahal izango ditu kontratua behar bezala egiten dela ziurtatzeko, prestazioa partzialki edo akastun betetzen ez den kasuetan zigorrak ezartzea proposatu ahal izango du, prestazioa gauzatzen berandutzen denean zigorrak ezartzea proposatu ahal izango du, eta gerta daitekeen atzerapenaren berri eman ahal izango du. Kontratua gauzatzean gertatzen da, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, eta kontratistari jarraibideak ematea kontratua behar bezala gauzatzeko. Halaber, hiru hilean behin txosten bat egin beharko du, kontratua nola gauzatzen eta behar bezala betetzen den ebaluatzeko. Horretarako, esleipendunak eskatutako informazioa bidali beharko du, aldez aurretik kontratazio-organoak eskatu gabe, erantsitako taulan adierazten den aldizkakotasunarekin. Gainera, hemen jasotakoez gain, beste irizpide batzuk ere egiaztatu ahal izango ditu kontratuaren arduradunak.

Será función del responsable del contrato, entre otras, la supervisión de la ejecución del contrato, para lo cual podrá adoptar decisiones para la correcta ejecución de éste, dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización del mismo, proponer la imposición de penalidades en los casos de incumplimiento parcial o defectuoso de la prestación, proponer la imposición de penalidades en los casos de demora en la ejecución de la prestación, informar acerca de si el posible retraso producido en la ejecución del contrato es por motivos imputables al contratista y dar instrucciones al contratista para la correcta ejecución del contrato. Asimismo, será preceptiva la realización de un informe trimestral que evalúe la ejecución y correcto cumplimiento del contrato. A estos efectos, la adjudicataria tendrá que remitir, sin previo requerimiento por parte del órgano de contratación, la información solicitada con la periodicidad que se indica en el cuadro adjunto. Además, el responsable del contrato podrá comprobar otros criterios además de los aquí recogidos.

criterio	Mes 1	Mes 2	Mes 3	Mes 4	Mes 5	Mes 6	Mes 7	Mes 8	Mes 9	Mes 10	Mes 11	Mes 12
relación de personal	■						■					
fotografías que demuestren el estado del local afecto al contrato		■										
fotografías en las que se acredite el estado de los uniformes de los trabajadores adscritos al contrato		■										
relación de subcontratos y documentos que lo acrediten	■											
nóminas del mes anterior de un tercio de la plantilla					■					■		
documentos RLC y RNT (antiguos documentos TC1 y TC2) del mes anterior					■					■		
Informe de ejecución del contrato				■				■				■

4.- Balio zenbatetsia. (6. eta 19. klausulak)

SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

4.- Valor Estimado. (Cláusulas 6 y 19)

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 101 LCSP, el valor estimado se ha considerado teniendo en cuenta los costes derivados de la aplicación de las normativas laborales vigentes, así como los costes que se derivan de la ejecución material de los servicios y el beneficio industrial y más concretamente los honorarios y remuneraciones del personal a adscribir a la realización del servicio.

Administrazio-baldintza partikularren plegu hau, preskripzio tekniko partikularren plegua eta azterketa

Este pliego de cláusulas administrativas particulares junto con el pliego de prescripciones técnicas

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

ekonomikoa lizitazioa arautuko duen dokumentazioaren zati bereizezinak dira. Agiri honetan aipatzen diren datu ekonomiko guztiak azterketa horretan kalkulatu dira, eta zuzenean aipatzen dira, hemen beharrezkoak ez diren erredundantziak saihesteko.	particulares y el estudio económico, son parte inseparable de la documentación que ha de regir la licitación. Todos los datos económicos a los que en este pliego se hace referencia, han sido calculados en el citado estudio, al que se hace remisión directa, a los efectos de evitar aquí redundancias innecesarias.

			PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN				VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	3 años sin IVA	3 años con IVA	modificaciones	
599.051,14	658.956,25	1.198.102,27	1.317.912,50	1.797.153,41	1.976.868,75	239.620,45	2.036.773,86

Se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios, se ha calculado el precio para cada uno de esos 3 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

5.- Lizitazioaren oinarri-aurrekontua eta hura asetzeko kreditua. (7., 8. eta 51. klausulak)

5.- Presupuesto base de licitación y crédito en que se ampara. (Cláusulas 7, 8 y 51)

Lizitazioaren prezioa (BEZ gabe) / *Importe de licitación (IVA excluido)*	1.198.102,27 euros
BEZ aplikagarria / *Tipo IVA aplicable*	10 %
Lizitaz. oinarrizko aurrek. (BEZ barne) / *Ppto base de licitac. (IVA incluido)*	1.317.912,50 euros

BEZari dagokionez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikuluko Bat puntuko 8. paragrafoak ezartzen du zerga horretatik salbuetsita egongo direla zuzenbide publikoko erakundeek edo izaera sozialeko entitate edo establezimendu pribatuek oinezkoei laguntzeko egindako eragiketak. Aldiz, esleipenduna merkataritza-sozietate bat izango balitz, zerga-tasa % 10ekoa izango litzateke. Une honetan esleipendunaren forma juridikoa ezezaguna denez, % 10eko zerga-tasa aplikatu behar da zenbatekoak kalkulatzeko.	En lo que al IVA se refiere, el apartado 8º del punto Uno del artículo 20 de la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, establece que estarán exentas de este impuesto las operaciones de asistencia a transeúntes efectuadas por entidades de derecho público o entidades o establecimientos privados de carácter social. Por el contrario, si la adjudicataria fuese una sociedad mercantil el tipo impositivo sería del 10%. Dado que en este momento se desconoce la forma jurídica del futuro adjudicatario, procede aplicar el tipo impositivo del 10% en el cálculo de los importes.
Balio zenbatetsia / Valor estimado	2.036.773,86 euros
Aurrekontu-partida / *Partida presupuestaria*	0500.227.04.231.00
Baterako finantzaketa: Ez	Cofinanciación: No
Eskudirutan eta beste ondasun batzuetan ordaintzea: Ez.	Pago en metálico y en otros bienes: No
Prezioa zehazteko sistema: oroharreko prezioan	Sistema de determinación del precio: a tanto alzado
Unitate kopurua kontratuaren prezioaren %10eraino gehitzeko aukera: Ez.	Posibilidad de incrementar el número de unidades hasta el 10 % del precio del contrato: No.
Lizitazioaren zenbatekoa luzapenik gabeko kontratuaren epeari dagokio hau da, bi urteko epeari.	El importe de licitación está referido al plazo del contrato sin prórrogas, es decir, a un plazo de dos años.
Enpresek II. eranskina betetzean egiten duten eskaintza lizitazioaren oinarrizko aurrekontua erreferentziatzat hartuta egingo da, hau da, bi urterako erreferentziatzat.	La oferta que realicen las empresas al rellenar el anexo II, se hará tomando como referencia el presupuesto base de licitación, es decir, para un periodo de dos años.

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

6.- Prezioak berrikustea (13. klausula).

Ez da bidezkoa, SPKLren 103. artikuluan xedatutakoaren arabera. Lizitazio honen dokumentazioaren zati banaezina den azterketa ekonomikoan adierazi den bezala, urteko igoera metagarria aplikatu da, baina prezioa urtero berrikusteko aukerarik ez dagoenez, 3 urte horietako bakoitzerako prezio bat kalkulatu da eta batez bestekoa egin da. Batez besteko prezio horren gainean egin beharko dituzte eskaintzak lizitatzaileek beherantz. Prezio hori, lizitatzaileek eskainitako baja aplikatu ondoren, ez da aldatuko kontratuak irauten duen bitartean.

6.- Revisión de precios (Cláusula 13).

No procede, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 103 LCSP. Como se ha indicado en el estudio económico que forma parte inseparable de la documentación de esta licitación, se ha aplicado un incremento anual acumulativo, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente el precio, se ha calculado un precio para cada uno de esos 3 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Este precio, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerá invariable durante toda la duración del contrato.

7.- Ordainketen araubidea (36. klausula).

Hileko ziurtagiriak emango dira, azken likidazioaren konturako ordainketa gisa.

Konturako ordainketak prestaketa-eragiketengatik: Ez dagokio.

7.- Régimen de pagos (Cláusula 36).

Se expedirán certificaciones mensuales, como pagos a cuenta de la liquidación final.

Abonos a cuenta por operaciones preparatorias: No proceden.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2026	1	49.920,93	54.913,02
2027	12	599.051,14	658.956,25
2028	11	549.130,21	604.043,23
	1	49.920,93	54.913,02
2029	11	549.130,21	604.043,23
modificaciones 20%		239.620,45	
TOTAL	***36***	***2.036.773,86***	***1.976.868,75***
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de diciembre de 2026			

8.- Egikaritze-epe eta -lekua. (9.,10. eta 53. klausulak)

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da hura formalizatzen denetik, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin.

Zerbitzua emango den lokala Tolosako Enperadore kaleko 7. zenbakian dago.

8.- Plazo de ejecución y lugar de ejecución. (Cláusulas 9, 10 y 53)

La duración del contrato será de dos años desde la formalización de éste, con posibilidad de prorrogarlo por otro año más.

El local donde se prestará el servicio está ubicado en el número 7 de la calle Emperador de Tolosa.

9.- Lan-programa. (47. klausula)

Eman beharreko zerbitzuen lan eta antolaketa-programa eta balio-judizioen mende dauden gainerako alderdiak, memoria teknikoaren zati dira. Memoria hori **B gutun-azalean sartu beharko da**,

9.- Programa de trabajo. (Cláusula 47)

El programa de trabajo y organización de los servicios a prestar y demás aspectos sujetos a juicios de valor, son parte integrante de la memoria técnica, que **habrá que incluir en el sobre B,** y que como

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

eta, aurrerago esango dugunez, 19.1 puntuan xedatutakoaren arabera baloratu ahal izango da.	más adelante se dirá, será valorable conforme a lo dispuesto en el punto 19.1.
10. Adjudikazio-prozedura eta -irizpideak. (18. eta 20. klausulak)	**10.- Procedimiento y criterios de adjudicación. (Cláusulas 18 y 20)**
Presako tramitazioa: SPKLren 119. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak presazkotzat jo du espediente hau, premia atzeraezin bati erantzuten dion kontratu bati baitagokio, eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena bizkortu egin behar baita. Hori dela eta, espedienteak lehentasuna du espedientea bideratzeko. Horregatik, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa lizitatzaileen proposamenak bitarteko elektronikoen bidez bakarrik aurkeztuko dira, HOGEI (20) EGUN NATURALEKO epean, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	**Tramitación urgente:** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 119 LCSP, dado que este expediente corresponde a un contrato cuya celebración responde a una necesidad inaplazable y cuya adjudicación es preciso acelerar por razones de interés público, ha sido declarado de urgencia por el órgano de contratación. Dado lo cual, el expediente goza de preferencia para su despacho. Por ello, y de conformidad con lo dispuesto en la letra b) del apartado 3) del artículo 156 LCSP, las proposiciones de las empresas licitadoras se presentarán exclusivamente por medios electrónicos, durante el plazo de VEINTE (20) DÍAS NATURALES, a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.
Prozedura: Irekia.	Procedimiento: Abierto.
Erregulazio harmonizatupeko kontratua: Bai.	Sujeto a regulación armonizada: Sí.
SPKLren IV. eranskinean zerrendatutako gizarte-zerbitzuen eta beste zerbitzu espezifiko batzuen kontratua da. Horregatik, araudi harmonizatuari lotzeko atalasea 750.000 eurokoa da, eta ez 216.000 eurokoa.	Se trata este de un contrato de servicios sociales y otros servicios específicos enumerados en el anexo IV de la LCSP. Por ello, el umbral para su sujeción a regulación armonizada es de 750.000 euros y no de 216.000 euros.
Kontratazio errekurtso bereziaren menpe: Bai.	Sujeto a recurso especial de contratación: Sí.
Adjudikazio-irizpideak: Hainbat irizpide hartzen dira kontuan.	Criterios de adjudicación: Se atiende a una pluralidad de criterios.
11.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa. (14., 15., 16. eta 34. klausulak)	**11.- Solvencia económica, financiera y técnica. (Cláusulas 14, 15, 16 y 34).**
Enpresaburuek kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak dituztela egiaztatu beharko dute, SPKLren 86.etik 91.era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Kasu honetan, sailkapena ezin da eskatu, zerbitzu-kontratua delako, eta ez dago baliokidetasunik urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren II. eranskinean, Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenean.	Los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica, de conformidad con lo previsto en los artículos 86 a 91 de la LCSP, no siendo exigible en este caso la clasificación, al tratarse de un contrato de servicios y no existiendo equivalencia en el Anexo II del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Beraz, kaudimena bitarteko hauen bidez egiaztatuko da:	Por tanto, la solvencia se acreditará por los siguientes medios:

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzea:

SPKLren 87.1 artikuluaren a) letran xedatutakoarekin bat etorriz, enpresaburuak enpresaren urteko negozio-bolumen globala egiaztatu beharko du, erabilgarri dauden azken hiru ekitaldietako onena, betiere **900.000 eurotik beherakoa izan gabe**. Kaudimen hori justifikatzeko, dagokion eranskinean adierazi beharko da lizitatzaileak urteko negozio-bolumen hori urteko ekitaldirik onenean betetzen duela, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldien barruan. Esleipendun izateko proposatzen den enpresari bakarrik eskatuko zaio Merkataritza Erregistroan behar bezala gordailututako urteko kontuak aurkeztea.

- Acreditación de la solvencia económica y financiera:

De conformidad con lo dispuesto en la letra a) del artículo 87.1 de la LCSP, se exigirá que el empresario acredite, el volumen anual de negocios global de la empresa referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles, cuya cifra en todo caso deberá ser **no inferior a 900.000 euros.** La justificación de dicha solvencia se realizará rellenando para ello el apartado correspondiente del DEUC (y que debe introducirse en el sobre A). Sólo se exigirá la presentación de las cuentas anuales debidamente depositadas en el Registro Mercantil a la empresa que sea propuesta como adjudicataria.

- Kaudimen teknikoa egiaztatzea:

SPKLren 90.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kaudimen teknikoa egiaztatzeko, enpresaburuak gutxienez izaera bereko edo antzeko izaera duten hiru zerbitzu edo lanen zerrenda bete beharko du dagokion eranskinean. Urteko zenbatekoa (BEZik gabe) **415.000 eurokoa izango da gutxienez**, eta **enpresak egindakoa (ez enpresako langileek)**. Zerrenda horretan adierazi beharko dira horien zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua. SPKLren 90.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, lan edo zerbitzu bat kontratuaren xedearen izaera berekoa edo antzekoa dela zehazteko, CPV kodeak hartuko dira kontuan.

- Acreditación de la solvencia técnica:

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 90.1 de la LCSP, para acreditar la solvencia técnica, se exigirá que el empresario presente, rellenando para ello el apartado correspondiente del DEUC (y que debe introducirse en el sobre A), una relación de como mínimo tres servicios o trabajos de igual o similar naturaleza y por importe en cómputo anual (IVA excluido) **de al menos 415.000 euros realizados por la empresa (no por el personal de la misma).** En dicha relación se deberá indicar el importe, la fecha y el destinatario, público o privado de los mismos. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 90.1.a) de la LCSP, para determinar que un trabajo o servicio es de igual o similar naturaleza al que constituye el objeto del contrato, se tendrán en cuenta los códigos CPV.

12.- Kaudimenaren baldintzak zehaztea. (17. eta 28. klausulak)

a) Giza baliabideak

SPKLren 76.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzaileek kontratuaren xede den prestazioa gauzatzeko ardura duten pertsonen izena eta lanbide-kualifikazioa adierazi beharko dituzte beren eskaintzan. Horretarako, EKAB agirian dagokion atala bete beharko dute, A gutun-azalean sartu beharko dena.

Enpresa esleipendunak kontratu hau gauzatzeko behar diren langileak jarriko ditu, aplikatzekoa den lan-araudiaren arabera, eta Gizarte Segurantzari eta bertako langileei egin beharreko ordainketak egunean izan beharko ditu. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango die hori egiaztatzeko, kontratua gauzatzen den bitartean.

12.- Concreción de las condiciones de solvencia. (Cláusula 17 y 28)

a) Medios personales

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76.1 LCSP los licitadores deberán indicar en su oferta, el nombre y la cualificación profesional de las personas responsables de ejecutar la prestación objeto del contrato, para lo cual deberán rellenar el apartado correspondiente del DEUC y que habrá que incluir en el sobre A.

La empresa adjudicataria aportará el personal necesario para la ejecución de este contrato, con arreglo a la normativa laboral de aplicación, debiendo estar al corriente de sus pagos a la Seguridad Social y a sus empleados, pudiendo ser requerida por el Ayuntamiento en cualquier momento, a lo largo de la ejecución del contrato, para comprobar tal extremo.

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

Enpresa esleipenduneko langileek ez dute eskubiderik sortuko Udalaren aurrean, ez dute inolako lan-harremanik izango Udalarekin, eta argi eta garbi identifikatuta egon beharko dute Udaletik kanpoko enpresako langile gisa. Kontratua azkentzen den unean, ezin izango da Langileen Estatutuko aginduetan aurreikusitako subrogaziorik egin. Alde horretatik, esleipenduna zerbitzu honi atxikitzen zaion langileak zerbitzu horren lan-mendekotasuna izango dute, eta ezein arrazoirengatik, baita kaleratzeagatik ere, ezin izango dira langile horiek Udalaren mende jarri, eta Udalak ez du esku hartuko esleipendunaren eta bere langileen artean dauden lan-harremanetan. Hori dela eta, lanaren antolaketa eta kontrola esleipendunaren kontura izango dira, eta Udalak ezin izango die inoiz zuzeneko jarraibiderik eman bertako langileei. Jarraibide, gomendio edo gidalerro horiek enpresak izendatutako solaskideari soilik adieraziko zaizkio; beraz, esleipenduna bera arduratuko da bere lana antolatzeaz eta, horrela, honen antzeko helburua duten eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuentzat garatzen ari diren beste kontratu batzuekin bateragarri egiteaz.

El personal de la empresa adjudicataria no generará derechos frente al Ayuntamiento, ni ostentará vínculo laboral alguno con éste y deberá estar claramente identificado como personal de la empresa ajeno al Ayuntamiento. En este sentido, el personal que el adjudicatario adscriba a la prestación del presente servicio tendrá dependencia laboral del mismo, sin que, por ninguna causa, incluso la de despido, pueda pasar dicho personal a depender del Ayuntamiento, no interviniendo éste bajo ninguna forma en las relaciones laborales que existan entre el adjudicatario y su personal. Por este motivo, la organización y control del trabajo serán de cuenta única y exclusiva del adjudicatario, sin que el Ayuntamiento pueda en ningún momento dar instrucciones directas al personal de la misma. Dichas instrucciones, recomendaciones o directrices serán manifestadas única y exclusivamente al interlocutor designado por la empresa, por lo que será la propia adjudicataria la encargada de organizar su trabajo y hacerlo así compatible con otros contratos con un objeto similar al presente y que pueda venir desarrollando para otras entidades, tanto públicas como privadas.

Esleipendunak lan-kontratazioaren, laneko segurtasunaren eta higienearen arloko legezko eta erregelamenduzko xedapenak bete beharko ditu, eta hori ez betetzeak ez du ekarriko udal-administrazioaren erantzukizunik hark zerbitzua emateko kontratatutako langileen aurrean.

El adjudicatario estará obligado al cumplimiento de las disposiciones legales y reglamentarias en materia de contratación laboral, seguridad e higiene en el trabajo, cuyo incumplimiento no implicará responsabilidad de la administración municipal frente al personal contratado por aquél para la prestación del servicio.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen (curriculum vitae ez direnak) izenak eta titulazioak adierazi beharko dituzte. Horretarako, Kontratazioaren Europako Dokumentu Bakarrean (EKAB) dagoen atala erabili beharko dute, A gutun-azalean sartuko dutena.

Los licitadores deberán incluir los nombres y titulación del personal (no currículum vitae) responsable de ejecutar la prestación objeto del contrato, para ello deberán hacer uso del apartado existente en el Documento Europeo Único de Contratación (DEUC) que incluirán en el sobre A.

SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta zerbitzuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan hartuta, kontratuari atxiki beharreko lantaldea diziplina anitzekoa izango da, eta profil hauek izango ditu:

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76.2 LCSP, y dada la complejidad y trascendencia del servicio, el equipo de trabajo a adscribir al contrato será multidisciplinar y estará compuesto por los siguientes perfiles:

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

Zuzendari bat lanaldiaren % 20an	**Un director al 20 por ciento de la jornada**
Besteak beste, zerbitzua eta lantaldea zuzentzeaz eta Udalarekin zerbitzua kudeatzeaz arduratuko da (urteko koordinazioa, memoria, programa hobetzeko proposamenak...).	Entre otras funciones, se encargará de dirigir el servicio y el equipo de trabajo, así como de realizar las tareas de gestión del servicio con el Ayuntamiento (coordinación anual, memoria, propuestas de mejora del programa, …).
Zuzendaritza-gaitasuna prestakuntza espezifiko eta/edo lan-esperientzia honen bidez egiaztatu beharko da: a) Orientazio gisa, eta inola ere ez murriztaile gisa, baliozkoak izango dira Humanitateen, Gizarte eta Lege Zientzien, Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren arloetako goi-mailako edo erdi-mailako ikasketak; halaber, baliozkoak izango dira Gizarte eta Kultura Zerbitzuetako eta Komunitaterako Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak, etab. b) Antzeko zerbitzuen kudeaketan eta zuzendaritzan gutxienez 12 hilabeteko lan-esperientzia egiaztatua izatea. c) Erantzukizunpeko adierazpen bidez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren antolaketa eta funtzionamendua eta sistema antolatzeko eta diagnostikatzeko tresnak ezagutzen dituela adieraziz. d) Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna.	La competencia directiva deberá acreditarse mediante la siguiente formación específica y/o experiencia laboral: a) A título meramente orientativo, y en ningún caso restrictivo, serán válidos los estudios superiores o medios en las áreas de Humanidades, Ciencias sociales y jurídicas, Relaciones Laborales y Trabajo Social; asimismo serán válidos los estudios de Formación Profesional de Grado Superior en Servicios Socioculturales y a la Comunidad, etc. b) Acreditada experiencia laboral en gestión y dirección de servicios similares, de al menos 12 meses. c) Mediante declaración responsable, manifestación del conocimiento de la Ley de Servicios Sociales y demás normativa de desarrollo y de la organización y funcionamiento del Sistema de Servicios Sociales y de los instrumentos de organización y diagnóstico del sistema. d) Competencia comunicativa en las dos lenguas oficiales de la Comunidad.
Esku-hartze sozialeko eta zerbitzuaren koordinazioko bost teknikari; lau lanaldi osoan eta bat gehiago lanaldiaren bi herenean	**Cinco técnicos en intervención social y coordinación del servicio; cuatro a jornada completa y uno más a dos tercios de la jornada**
Egunez, 8:00etatik 22:00ak arte, zerbitzua irekita dagoen tarte osoan egongo da esku-hartze eta koordinazio teknikari bat zerbitzuan Esku-hartze sozialaren esparruan berezkoak diren eginkizunak beteko dituzte. Bitartekaritzan, hezkuntza arloko esku-hartzeetan eta esku-hartze psikosozialean jardun egokia bermatuko dute, baita zerbitzuaren beraren koordinazio eta kudeaketari dagokionean ere.	Durante el día, de 8:00 a 22:00 horas, durante todo el tiempo que permanezca abierto el servicio, deberá permanecer en el servicio un técnico de intervención y coordinación que realizará las funciones propias del ámbito de la intervención social. Garantizarán un adecuado desempeño en la mediación, intervención educativa y psicosocial, así como en la coordinación y gestión del propio servicio.
Zerbitzua kudeatzeko eta koordinatzeko zereginak: (kide bat izendatuko da koordinazio funtzioak lideratzeko, eta zerbitzu eta gizarte eragileekin koordinatzeko). - Zerbitzuaren funtzionamendu orokorra koordinatzea eta kudeatzea, eta azpi-programa edo arreta-gune bakoitzaren funtzionamendua arreta jartzea.	Funciones de gestión y coordinación del servicio: (se designará un miembro para liderar las funciones de coordinación y coordinarse con los servicios y agentes sociales). - Coordinar y gestionar el funcionamiento general del servicio, prestando atención al funcionamiento de cada subprograma o punto de atención. - Coordinación y organización del equipo de atención (personal y voluntariado) para garantizar el servicio

ESKUf349fa96-cd42-42e1-a5d7-ca7bf0c9a1e2

- Arreta-taldearen koordinazioa eta antolaketa (langileak eta boluntarioak) zerbitzua bermatuta izan dadin (hautaketa, haien egutegia, antolaketa…) eta zerbitzuaren jardun egokia sustatuz.

- Artatutako pertsonen esku-hartzearekin harremana duten erakunde eta profesionalekin koordinazioa.

- Horniduren kudeaketa eta erosketen koordinazioa.

- Hilero emandako zerbitzuaren adierazleak Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailari bidaltzea adierazitako formatuan.

- Gutxienez, urtean behin Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailarekin koordinazioa, memoria aurkeztu, jarraipena egin, eta funtzionamenduan sakontzeko.

(selección, calendario, organización...) y promoviendo el buen hacer del servicio.

- Coordinación con entidades y profesionales relacionados con la intervención de las personas atendidas.

- Gestión de suministros y coordinación de compras.

- Remitir al Área de Servicios Sociales y Salud los indicadores del servicio prestado mensualmente en el formato indicado.

- Al menos una vez al año, coordinación con el Área de Servicios Sociales y Salud, presentación de la memoria, seguimiento y profundización en su funcionamiento.

Erabiltzaileekiko zeregina:

- Zerbitzuaren eskatzaileen egoeraren balorazioa egitea, eta bazterkeria egoera gainditzeko helburuarekin esku-hartze planak proposatzea eta garatzea.

- Erabiltzaileei dauden baliabideen inguruan informazioa eta aholkularitza ematea, eta komunitateko gainerako baliabideetarako sarrera errazteko bitartekaritza lana egitea.

- Zerbitzuaren erabiltzaileen egonaldiak preskribatzea, behar egoerak aztertu eta lehentasunak edo egonaldi bereziak zehaztuz, arreta taldearekin elkarlanean.

